

KANALAK

Atal honetan azalduko dugu gure ile-lehorgailua bezeroengana nola iritsiko den eta zein kanal erabiliko ditugun horretarako. Gure helburu nagusia da bezeroek gure produktua era erraz batean aurkitzea, erostea eta jasotzea ahal izatea. Horregatik kanal guztiak pentsatu ditugu eta guztiek batera bezeroentzako esperientza on bat sortzeko dira.

Hasteko, gure produktua Carrefour eta MediaMarkt dendetan salgai egongo da. Bi denda hauek oso ezagunak dira eta jende askok joaten dira bertara. Kanal hau erabiltzea garrantzitsua dela iruditzen zaigu gure produktua ezagutarazteko, baina ez dugu guztiz kontrolatzen, denda horiek beraien modura funtzionatzen dutelako.



Bestetik, gure webgunea kanal propio eta zuzen bat da, eta bezeroek webgunetik zuzenean erosten dute ile-lehorgailua. Webguneak aukera ematen digu produktuaren salmenta zuzenean kudeatzeko eta informazioa eskaintzeko.



Ile-lehorgailua bezeroengana iristeko Girteka eta Correos erabiliko ditugu. Espainian Correos enpresa erabiliko dugu gure produktua etxeetara, lanetara... iristeko, eta Girteka, berriz, European zehar ere bai iristeko arazorik gabe. Garraio hauen bidez produktua egoera on batean iritsi behar dira zihurtatzen digute.

Azkenik, influenzerrak erabiliko ditugu gure produktua publizitzeko sare sozialetan. Sare sozialetan produktua erakutsiz laguntzen digu sare sozialak dituzten pertsona gehienei iristea eta ezagutaraztea gure produktua. Kanal hau ez da zuzena, baina oso lagungarria da gure produktua ezagutarazteko eta publizitate modu moderno eta erakargarrian egiteko.

Hala ere, sare sozialak ez dituen pertsonentzako gure produktua iristeko beste kanal bat pentsatu dugu. Telebistako publizitatea modu erakargar batean prestatuko ditugu. Horrela, publizitate modernoa eta guztientzako erabilgarria izango da.

Laburbilduz, gure kanalak elkarrekin funtzionatzen dute: denda fisikoak, webgunea, garraioa... kanal guztiek osatzen eta laguntzen dute gure produktua merkatuan egoteko eta jende askorengana iristeko, bakoitza bere funtzioa betez.